

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Jendaurrean jartzea ur hornidura, zabor bilketa eta estolderiako erroldak, 2019ko laugarren hiruhilekokoak

Ur hornidura, estolderia eta zabor bilketako zerbitzuak jasotzeagatik 2019ko laugarren hiruhilekoko tasak ordaindu behar dituztenen Okondoko udalerriko erroldak egin eta alkatearen dekretu bidez onetsi ziren.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, eragindako zergadunek errolda aztertu eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izateko. Interesdunek espedientea udal bulegoetan (Zudubiarte kalea, 1) aztertu ahal izango dute, 10:00etatik 13:00etara, astelehenetik ostiralera.

Erroldak eta haiei erantsitako likidazioak onartzen dituen egintzaren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkateari, hilabeteko epean, haiek jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea hilabetekoa izango da, 2020ko otsailaren 6tik martxoaren 6ra arte.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea amaiturik, ordaindu ez diren kuotetarako, betearazteko aldia hasiko da berez eta besterik gabe. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien errekarguak eskatzea, Zergen 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu prozeduraren kostuak ere, bidezko denean.

Banketxe bidez bideratutako ordainketak direla-eta zergapekoek ez dute inongo izapiderik egin beharko. Zergapeko horiei 2020ko otsailaren 24an kobratuko zaie.

Ordainketak helbideratu gabe dituzten zergapekoei udalaren bulegoetan entregatuko zaie ordainagiria (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara), dirua Nafarroako Rural Kutxan sar dezaten.

Okondo, 2020ko urtarrilaren 9a

Alkatea

JUAN JOSÉ ESCUZA DEL CAMPO